

Flamenkoa zer den argitu nahi dute

Flamenco on Fire jaialdia abuztuaren 25etik 29ra egingen dute Iruñean eta zenbait herritan
• Jose María Muñoz Berrio omenduko dute

Iker Tubia Iruñea

«Zer da flamenkoa?». Galdera horri erantzun nahi diote aurten Flamenco on Fire jaialdian, eta, horretarako, egitarau zabala antolatu dute, kalean zein antzokietan, abuztuaren 25etik 29ra. Aurten jaialdia Iruñean eta Tuteran ez ezik, Lizarran eta Vianan (Nafarroa) ere egingen dute. Azken bi herri horietako F on Fire jaialdia deituko da, beste egun batzuetan izanen da, eta jaialdi nagusitik independentea izanen da. Hala ere, helburu bera izanen du: flamenkoa ahalik eta gehien zabaltzea. Zortzigarren aldia du jaialdiak, eta berriki zendu den Jose María Muñoz Berrio omenduko dute.

Nazioartean sona hartu duen jaialdia da Flamenco on Fire, eta aurten ere flamenkoaren munduan maila handia duten musikariak ekarriko ditu Nafarroara: Falete, Niña Pastori, Javier Rui-

bal, Manuel Liñan, Pansequito, Antonio Reyes, Israel Fernandez eta Buika ariko dira, besteak beste, abuztuko hondarreko asteburuan. Kontzertu nagusiak Iruñeko Baluarte jauregian, Ziudadelako oholztan, eta Gaiarre antzokian, eta Tuterako Gaztanbide antzokian izanen dira.

Aurtengo berritasuna F on Fire jaialdia da, eta lau kontzertu bilduko ditu. Abuztuaren 7an Pastora Galvan eta Jesus Carbonell Vianan ariko dira, San Pedroko az-tarnategian; eta abuztuaren 20an Angel Ocray eta Luis Chaves *El Piti*, eta Pepe Habichuela eta Kiki Morente Lizarran ariko dira, kalean. Jaialdiko egitarauko laugarren kontzertua, berriz, Iruñean izanen da: India Martínez Nafarroa Arenan ariko da abuztuaren 18an. «Nabarmentzekoa da F on Fire sortu izana, flamenkoa beste toki batzuetara zabaltzeko aukera ematen duelako», azaldu du



Bruno Jimenez gitarrista flamenkoa jotzen, atzo, Iruñean, Flamenco on Fire jaialdiaren aurkezpenean. INIGO URIZ / FOKU

Juan Caserok, jaialdiko zuzendarietako batek.

Kaleko egitaraua ere aurkeztu du Flamenco on Fire jaialdiak. Tuteran iaz baino ekitaldi gehiago izanen dira karrikan. Iruñeko kontzertuak udaletxeko balkoian izanen dira, 12:00etan, Kondestablearen jauregiko balkoian, 19:00etan, eta Ezpeletako jauregian, 20:00etan. «Kaleko esperientzia hori bakarra da, eta jaialdi honen ezaugarri nagusietako bat da artistaren eta publikoaren arteko hartu-eman hori», esan du Arturo Fernandezek, jaialdiko beste zuzendariak.

Karrikako saioak dohanik izanen diren arren, aurrez gonbidapenak eskuratu beharko dira uztailearen 21etik aurrera. Pandemia dela-eta hartu behar izan duten neurrietarik bat da hori. Gainerako ikuskizunetarako sarrerak da-goeneko salgai daude www.flamencoofire.org helbidean.

Nafarroa eta flamenkoa

Jaialdiak omenaldi berezia egingen dio Jose María Muñoz Berriori. Iruñeko ijito ezaguna zen, berriki zendu zena, eta flamenkoari eta jaialdiari oso loturik zegoena. Omenaldia abuztuaren 28an iza-

nen da, Baluartean emanen duten *Libertad* ikuskizunean. Horrekin batera, gogoan izan dute Sabicas maisua, eta haren memoria eta lana biltzeko gogoia berretsi du jaialdiak.

Iraganeko flamenko musikarien balioa ez ezik, oraingoena ere aitortzeko lan egingen du jaialdiak, Caseroren hitzetan: «Garrantzitsua da Nafarroako flamenkoa babestea, horregatik programatu ditugu, oso garrantzitsua baita harrobiak jarraitzea». Konpromiso hori agertzeko, jaialdiaren aurkezpenean Bruno Jimenez gitarrista aritu da bere gitarrarekin.